


# Orkestra zooragarria

Album irudidunentzako XIX. Etxepare Saria (2025)



Testua: **Gotzone Butron**

Irudiak: **Aitziber Raya**

Album irudiduna.

Gaiak: Musika klasikora, zehazki kantura, hurbiltzeko narrazioa.

Nabarmentzekoak: kontakizun dibertigarria, ilustrazio freskoak, umorea, askatasunaren aldarria, musika sortzeko gonbitea, Mozart, Puccini eta Strozzi klasikoen ariak.

IBIC: YBC (Album irudidunak)

Kartoizko azala | 21 x 29,5 cm. | 44 or.

Salneurria: 16,00 €

ISBN: 978-84-9172-437-7

ISBN 978-84-9172-437-7



## Musikaz maitemintzeko ipuin zoragarria.

Album hau erakargarria da begiekin gozatzeko, baina, gutxitan bezala, baita belarriekin entzuteko ere. Alde batetik, bikain eta neurritsu kontatuta dagoen istorio dibertigarria dakarkigu: ariak kantatzen aritzen den ama kantari bikain bat, animalietan ausartenak ere liluratzeko gai izateaz gain, egunerokotasuna itzulipurdikatzeko gauza dena —ederra da gizakiak eta piztiak harremanetan jartzea, biak mundu paraleloetan egokitu beharrean—. Eta, beste alde batetik, musika klasikorako gonbita eskaintzen digu, ausardiaz eskaini ere: argumentuaren aria partitura bat dugu oraingoan, Laura Esquivel idazleak *La ley del amor* nobelan egin zuen bezala, hiru kantu ditugu albuma irakurritz, ikusiz, eta entzunez goza dezagun. *Gozatu*: agian horixe da albuma ongien deskribatzen duen aditza, funtsean, egileek testu-ilustrazio eder eta bihurrien bitartez, orekan eta harmonian, horixe eskaintzen digutelako: *gozamena*.

*Orkestra zooragarria*, izenak dioen bezala, zooragarria da. Musika eta fantasia modu magistralean elkarlotzen ditu, umorea ere txertatuz eta istorio dibertigarria bezain hezitzailea sortuz «pilula liburua» izatera iritsi gabe.

Irudiak oso onak dira, testuarekin guztiz bat datoz erabiltzen diren plano, tamaina eta kokapen desberdinak lana borobiltzen dutelako. Eranskin moduan, QR batzuk daude istorioan zehar aipatzen diren musika lanak irakurri bitartean aditu ahal izateko. Horrek irakurlea guztiz murgiltzen du eta gauza berriak ezagutzeko leiho bat irekitzen dio.

## Gotzone Butron (Urduliz, 1965)

Filosofian lizentziatua. AEK-ko irakaslea eta koordinatzailea Plentzian, eta Abusuko bibliotekako arduraduna 2006 geroztik (Arrigorriaga). Idazle Eskolako graduondokoa egin du. 2021ean, Bizkaiko Foru Aldundiko *Ipuinak* saileko *Sardinerak* ipuina idatzi nuen, eta 2022an Bizkaiko Foru Aldundiko *Nire Sarajevo, Bizkaldatz Jarraitzeko prest?* lehiaketari hasiera eman zion narrazioa. 2024an Karmele Igartua sorkuntza beka eskuratu zuen, eta geroztik haurrentzako ipuinen sorkuntzan dabil buru belarri.

## Aitziber Raya (Mungia, 2001)

EHUn eta Universitat Politècnica de València Sorkuntzako eta Diseinuko Gradukoa ikasi zuen. Gradua amaitu ondoren, Sugaar argitaletxearekin lan egin du hainbat ilustrazio eginez, Zerbikas-en gidak ilustratu eta infografia ilustratuak garatu ditu Gaudi Academia de Knowledge (Bartzelona) enpresarentzat. Gaur egun, Diseinu eta Ilustrazioko master profesionalizatzailea amaitu berri du Universitat Politècnica de València.

# Orkestra zooragarria

Album irudidunentzako XIX. Etxepare Saria (2025)

